

## “Utopiaren fantasian”, oraindik?



Iñaki Martínez de Luna  
SOZIOLOGOA  
@imartinezdeluna

Mikel Zaratek *Utopiaren fantasian* liburuxka idatzi zuen 1979an. Horretan *Umeen zentzuna* ataltxo dago, egileak berak “komedia barregarri ta (sic.) negargarri” gisa aurkezten duena. Ironia maisuki baliatuz, horretan aurkezten ditu euskaldunen zenbait portaera desegoki. Adibidez, helduek umeei euskaraz egin dezatela esan eta, aldi berean, beraien artean erdaraz dihardutela.

XX. mendean idatzitako ipuin horren egoera bera jasotzen du XXI. mendeko *Posiktibity* kanpainak ere. Ia berrogei urte igaro arren, orduko eta egungo pasadizoen arteko alderik nabarmenena euskarriari datza –liburua *versus* bideoa–, ez edukian edo esanahietan. Optimista eta pesimistaren arteko lehia gogorarazten du antzekotasun horren balorazioak: “Ez gara atzeraka joan ala ez dugu ezer aurreratu?”. Ez bata eta ez bestea, seguru asko.

Hamarkadotan lan sendoa egin da. Lortu dugu, hasteko, euskararen gainbehera eten eta –neurri batean– joera iraultzea. Hori izugarria da, izatez. Hizkuntza borroka honetan, burua lubakitik ateratzen hasi gara, baina gorputza zuloan dugu oraindik.

Lorpenekin jarraituz, euskalgintza –soziala zein instituzionala– ezagutza soziolinguistikoaz jantzi eta eskarmentuz jabetu da. Mugak eta ezintasunak oraindik ugariak diren arren, euskalgintza gertu dago euskarak, lubakitik aterez,

gizartea konkista dezan. Gizartea konkistatu, bai, hori baita duela berrogei urteko zein gaurko euskararen utopia.

Urrats berriak egiten hasiak gara. Adibidez, *Egia eredu* tankerako ekimenak ugarituz, euskararen erabilera hedatzeko modua aurkitu dugu. Tarra-tarra, bagoaz euskara lubakitik ateratzen.

Ekimen horiek baliotsuak direla jakin eta gero, motz gelditzen zaizkigu lekuan lekuko ekimen isolatu gisa. Orain, gakoa da euskararen erabilera gizarte zabalean areagotzea, ez soilik euskalgintzak eragin zuzena duen meneko guneetan, euskaratik lekutan bizi diren herritarrak ere jabetu daitezela hizkuntza horren errealitate eta balioaz. Hori lortzeko, euskalgintza osoaren bulkada sendoa ez ezik, beste eragile sozial askoren laguntza ere beharrezkoa izango da.

Bide horretan kokatzen da Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak, bi-biak eskutik hartuta, aurkeztu berri duten asmoa: “Euskarak 365 egun: hizkuntza-ohiturak eta gizarte aktibazioa Euskal Herrian eta elkarrekin lantzeko proposamen berria”. Ekimen horrek, duen dimentsio erraldoia tarteko, 2018ra arte ez du argia ikusiko. Egitasmo horretara euskalgintzako eta gizarteko eragileak bilduz gero, euskara lubakitik atera eta gizartea konkistatzen hasiko ginateteke. Alegia, “utopiaren fantasian” gelditu ez, eta ametsa errealitate bihurtzen hasteko. ■

## Ustezko



Leire Narbaiza  
Arizmendi  
IRAKASLEA  
@txargain

Abistegiak delituz eta salaketaz zamatuta iristen zaizkigu begi-belarrietara. Urliak lapurretan egin omen duela; ustez Sandiak iruzur egin diola ogasunari... Omen, ei, bide, ustez, antza, itxuraz, dirudienez, agidanez, nonbait.

Hanka-puntetan dabilta kazetariak inor ez mintzeko (betiere euskalduna ez izatekotan mindua). Edota demanden beldurrez, sekula ez dago jakiterik-eta.

*Ustezkokeria* hau, baina, hedatu egin da; behar ez zen lekuetara, gainera. *Ustezko* bortxaketa, eta ustezko eraso sexuala errepikatzen dituzte mantra baten moduan. *Ustezkoak* atxilotutakoak dira epai batek kondenatu arte; ez, oster, delitua,

sekula ez *ustezkoa*. Halakorik ez da gertatzen lapurretan, esate baterako. Salatutako lapurretak lapurreta dira, eta kito!

Beraz, *ustezko* erabilita, zalantza jartzen da eraso eta emakume salatzailea. Andrakumeon berbak ez duelako balio, poliziak berak norbait atxilotu arren. Komunikabide askok ez digu sinesgarritasunik ematen andrazkooi halako denuntzia bat egiten dugunean. Antzina ere ezin genuen epaitegietan lekuko izan, adibidez. Historikoki emakumeen esana gutxietsia izan da. Beti, antza, justiziaren izenean. Itxuraz, egiaren mesedetan, emakumeok ustezko gezurtiak baikara. ■